


# **URUMEA ETA LANBIDEAK**



**EL URUMEA  
Y LOS OFICIOS**

# URUMEA ETA LANBIDEAK

*Antxon Aguirre Sorondo*

Erakunde askok hartu du aurten URUMEA ibaiarekin nolabaiteko lotura izan duten lanbideak gogoratzeko parada. Lerro hauen helburua ere irakurlea gogoeta txiki batera gonbidatzea da, ibaiaren lehengo eta egungo erabilerak konparatze aldera.

Hauxe da azterketa honetatik ateratzen dugun ondoriorik nagusiena, garai batean Urumea ibaia aberastasun-iturri zen, inguruko familia askorentzat bizibide garrantzitsua; gaur, berriz, bizkarra emanda bizi gara, badenik ere ez dakigula eta, hainbatetan, zabortegi moduan erabiliz.

URUMEA ibaia gure historiaren eta ekonomiaren atal garrantzitsua izan da, gure arbasoen bizi-iturrietako bat. Horrexegatik bakarrik merezi du gure arreta, maitasuna eta ardura, etxeen dugun senide zahar bat balitz bezala

## ARRANTZALEA

Zuaznabarrek 1831n idatzi zuenez, URUMEAn garai hartan “angilak, errutilo hegatsgorriak, barbarinak, amuarrainak, izokiak, alburak eta paluzak” hazten omen ziren.



Arropa garbitzaleak ibaiarako bidean.

Ibai bazterrean “otarrak” jarri zuten omen zuten arrantza. Donostia eta Hernaniko herriek eta Astigarragako Murgia jaunak alokatzen omen zituzten “otar” hauek beren zonaldean. Zenbait herritar, beraz, Urumeako arrantzatik bizi zen.

Eta zeinek ez ditu gogoan URUMEAKO zubi gainetako korroko-arrantzaleak?

Gaur egun ere, maiz ikusten ditugu arrantzarako zaletasuna dutenak ibai honen itsasoratzegunean beren kainabera eta tresneriarekin.

## ARROPA-GARBITZALEAK

Urumea bazterretako baserritarrak bertan garbitzen zituzten beren arropak. Baino hauetaz gain, bazeuden lanbidez garbitzaileak zirenak ere, Hernani eta Donostia aldeko aberatsen arropak garbitzen zituztenak. Uda garaian Donostiako hotelak eta pentsioak udatiarrez beteta egoten ziren “itsas bainuak” hartzera etortzen baitziren, eta garbiketa lan ugari izaten zen.



Fototeka «Kutxa»

Garbitu beharreko arropa bildu, ibaian garbitu eta goizean eguzkitan zabaltzen zuten, hurrengo egunean, lisatuta, bezeroari itzultzeko. Garbitzaile bakoitzak bere bezeroak zituen.

Lanerako tresneria hauxe zen: egurrezko ohol bat garbitzeko, eta beren etxeetan egindako xaboi pittin bat.

## GABARRARIA

Honela zioen Lope Martínez de Isasti historialariak 1625ean argitaratu-tako idatziak:

*"Hay en la jurisdicción de esta villa á cuarto de legua una casa llamada Portua, que está cerca del río Urumea, á donde viene á parar todo el maderamen que va á la villa de San Sebastián y sus astilleros para fábricas de naos, fierro, remos de galeras, botas abatidas, sillares de piedra mármol y otras muchas cosas, que van por el río abajo en tres alas, que tiene el arrendador de aquella casa, y paga cierta renta á la villa de dos a dos años...".*




Fototeca «Kutxa»

Gabarra edo ala hauen gidariak ziren gabarrariak, eta beren egiteko hauxe zen, Donostiako portuetatik Hernanikoetara jendea eraman eta ekartzea. Garraiolari-lana utzi zutelarik, hirurogeigarren hamarkadara bitartean Urumea hondotik hondarra ateratzen aritu ziren, gerrirainoko uretan sartuta. Hondarra eraikuntzarako saltzen zuten eta hondarlarria izenez ziren ezagunak.

## ERROTARIAK

URUMEA eta bere ibaiadarren indarrak Hernani inguruko errota hauek mugitzen zituen: Franco, Karabel, Eziago, Osinaga, Epeleko, Ereñotzu, Pikoaga, Beko-errota eta Pagoaga. Urnietan, berriz, Errötaberrikoa; Astigarragan Murgikoa eta Mazkarrenekoa; eta Donostian: Mateo, Agirre,



Errotaberri, Anoeta, Errotatxo, Juandegi eta Santiago. Nafarroako lurretan ere baziren beste bost errota URUMEAko urek mugitzen zituztenak. Guztira, beraz, 24 errota.

Hauetan guztietan garia eta artoa xehetzen ziren pertsonentzat, eta garagarra ganaduarentzat. Ogia nork bere etxean egiten zuenez, denek joan behar izaten zuten alea xehetzera, eta, beraz, oso ezagunak ziren errotak denentzat. Gainera, irina zenbat eta berriagoa izan ogia hobea zenez, maiz samar joaten ziren errotara, egunero askotan.

## BURDINOLAK

Uraren indarra erabiliz lan egiten zuten errota eta burdinolak IX. mendean sortu ziren Europan barrena, eta X. mendetik aurrera zabaldu ziren piskanaka-piskanaka.

Bi eratako burdinolak zeuden, "handiak", burdina puska handitan lantzen zutenak, eta "txikiak" puska horietatik tresnak ateratzen zituztenak: lane-rako, armak, eraikuntzarako iltzeak, eta gainerako burdinkiak.

Hernaniko lurraldean honako burdinola hauek agertzen zaizkigu: APARRAIN, PAGOAGA, PIKOAGA, URRUZUNO, OLABERRI, HUERRATUA, ABILATS, LASA, EREÑOTZU, FAGOLLAGA, EPELA, ZEAGO ETA OSINAGA.

## SASKIGILEAK

Milaka urtetan erabili du gizakiak saskia garraio-lanetarako. Piskanaka-piskanaka gremioak sortu ziren eta honekin batera baita saskigile-lanbidea ere.

Gaztain-adarrak erabiltzen dituzte eta beharrezko dute ur asko dagoen lekuetan aritzea, adarrak, mozten direnetik erabiltzen diren arte, uretan sartuta egon behar baitute malgutasuna galdu ez dezaten.

Produktu berriak agertu zirenetik (zakuak, plastikoak, juteak...) saskia apaingarri bezala soilik erabiltzen dugu.

## ERRIOGUARDIA

Ibaia hain garrantzitsua izanik, ondo zaindu beharrekoa zen. Debekatua zegoen karea edota produktu pozoitsuak erabiltzea arrantzan egiteko; herrietara iritsi aurretiko ura erabiltzea larrau ontzeko; baimenik gabe ezinezkoa zen presa istea edota ureztaketalanetarako erabiltzea. Joan den mendearen amaiera aldera "errioguardaren" lanbidea sortu zuten hau guztia zaintzeko.

## UNTZIOLAK

URUMEA itsasoratzen den gunean evezik, Donostiako lurraldean ere bazeuden untziolak, eta gorago ere egon ziren. Martutenen eta Loiolan ere badakigu bazirela, eta, hain zuzen ere, azken hauek izan ziren gehien iraun zutenak.

Gora samarreko untzioletan untzi handien kroskoak bakarrik egiten ziren eta ondoren hutsik, marea gora aprobetxatuz, jaisten ziren, bukaera Pasaian emateko.

## BARBERU/ZIRUJAU/HAGINLARI/ODOL-ATERATZAILEA

Garai batean BARBERUA zen ebakuntza txikiak egiten zituena, "kurak" edo esan genezakeena. Haginak atera ere egiten zuen eta "herriko mediku soldatapekoak" hala agindutakoan, izainak ere jartzen zizkion gaixoari odola ateratzeko.

Eginkizun ugariko lanbide hau ikasteko hirutik bost urtera behar ziren, ikaslearen azkartasun eta adinaren arabera, eta horretarako lanbidea ezagutzen zuen beste batekin aritu behar izaten zuen lagunzaile modura.

Hernaniko udaletxeko akta-liburuan, 1851.urtekoan, hauxe irakur daiteke:

*"Hallándose de algunos años a esta parte inundada dicha ría (el URUMEA) de patos pertenecientes a familias que tienen contiguos a ellas sus cacerías y habiendo enseñado la experiencia que son causa de que se eche a perder la cría de **sanguijuelas** tan apreciadas por sus cualidades superiores a las que se crían en otros puntos, se recomienda también al señor Presidente procure evitar este mal impidiendo el que anden los patos en ella".*

URUMEA ibaia, beraz, izainengatik ere oso preziatua eta estimatua zen.

## EHIZA

Ez dugu uste zonalde honetan jendea bertako ehizetik bizi zenik, baina ibai honetara eta inguruko putzuetara etortzen ziren hegaztiak ehizatzen ibiltzen ziren herritarrak. 1831n herriari buruz egiten den deskribapenean esaten denez, Hernanin bazeuden azeriak, basurdeak, adarzabalak, otsoak, ahateak, hegaberak, oilagorrak, galeperrak eta faisaiak", besteak beste.



Fototeka «Kutxa»


## JAIAK

Mende honen hasieran oso ospetsuak izan ziren "URUMEAn zeharreko ibilalditxoak". Donostiako jendea ongi apaindutako gabarretan igotzen zen Loiola eta Martutenera festa giroan. Martutenen zegoen Kursaal izeneko jolas-parkea (gaur egungo Barkaiztegi sagardotegiaren inguruan) zezen-plaza eta guzti eta jende ugari biltzen zen bertan.

## KIROLA

Igerian ere egiten zuten URUMEAN zehar, Txomin-eneatik "Eskola frantsesetaraino".

Urte batean bertan ospatu zen Spainia mailako Igeriketa-Txapelketa, eta Florez madrildarra izan zen irabazlea.



Fototeka «Kutxa»

Gaur egunera etorrita, Ur-Kirolak arraun taldeak, sortu zela 75 urte betetzen dituenak aurten, eta Hernaniko Arraun-Elkarlanean bertan egiten dituzte entrenamenduak. Urumeako uretan arraun-probak ere ospatzen dira.

SAN JOANETAKO KONPARTSA

1997ko Ekainak 27

# EL URUMEA Y LOS OFICIOS

*Antxon Aguirre Sorondo*

Este año, por varias organizaciones, se está dedicando un recuerdo especial a los OFICIOS que han existido ligados de forma más o menos directa, a la vida de nuestro río URUMEA. Estas líneas sólo pretenden incidir como punto de reflexión, para que el lector pueda comparar la antigua utilidad del río, con la situación actual.

La conclusión más patente de este análisis, es que, así como antaño el río era fuente de riqueza y suponía un factor importante para las economías familiares de las gentes de la zona, hoy en cambio, se vive de espadas a él, olvidándonos de su existencia, y utilizándolo, a veces, como basurero.

El río URUMEA ha sido parte de nuestra historia, de nuestra economía, y factor importante de la vida de nuestros antepasados. Sólo por ello merece no sólo nuestra atención, sino nuestro cariño y cuidado, cual si fuera ese anclano familiar que tenemos en casa.

## PESCADOR

El autor Zuaznabar en 1831 escribió que en el URUMEA se criaban en aquellas fechas “anguilas, bermejuelas, salmonetes, truchas, albures, salmones y paluzas”.

La pesca se realizaba por trampas puestas en el lecho del río y que se llamaban “nasas”. Las villas de San Sebastián, Hernani y el señor de Murguia de Astigarraga arrendaban las “nasas” del URUMEA, de sus respectivos territorios. Había pues gente que se ganaba la vida con la pesca del URUMEA.

¿Y quién no recuerda a los pescadores de corcones sobre los puentes del URUMEA?

Aún hoy es frecuente ver en su desembocadura a los aficionados a la pesca con sus cañas y aparejos.

## LAVANDERAS

Como es normal las gentes de los caseríos ribereños del URUMEA aprovechaban esta circunstancia para lavar sus ropas. Pero también existía el oficio de lavanderas, las cuales lavaban las ropas de las gentes pudientes de Hernani y San Sebastián y sobre todo, de los distintos hoteles y pensiones de San Sebastián, que en verano se llenaban de turistas que acudían a tomar los famosos “baños de mar”, “muy beneficiosos para la salud”.



Fototeca «Kutxa»

Una vez recogida la ropa, a primera hora de la mañana siguiente, tras lavarla en el río, se ponía a secar al sol, y se entregaba al cliente al otro día, una vez planchada. Cada lavandera tenía su propia clientela.

Los útiles de su trabajo eran muy simples: una tabla de madera para lavar y un poco de jabón fabricado por ellas mismas en sus casas.

## EL GABARRERO

El historiador Lope Martínez de Isasti publicaba en 1625

*"Hay en la jurisdicción de esta villa á cuarto de legua una casa llamada Portua, que está cerca del río URUMEA, á donde viene á parar todo el maderamen que va á la villa de San Sebastián y sus astilleros para fábricas de naos, fierro, remos de galeras, botas abatidas, sillares de piedra mármol y otras muchas cosas, que van por el río abajo en tres alas, que tiene el arrendador de aquella casa, y paga cierta renta á la villa de dos a dos años... ".*

Los conductores de estas gabarras o alas eran los gabarreros que se dedicaban a bajar y subir de los puertos de San Sebastián hasta los puertos de Hernani. Abandonado ya el oficio de transportistas fluviales, hasta la década de los años sesenta se les podía ver aún sacar arena del fondo del URUMEA con el agua hasta la cintura. La arena la vendían para la construcción y se les conocía con el nombre de ARENEROS.

## LOS MOLINEROS


Movían las aguas del URUMEA y sus afluentes: los molinos de Franco, Carabel, Eciago, Osinaga, Epeleko, Ereñozu, Pikuaga, Beko-errota y Pagoaga, todos ellos en términos de Hernani. En Urnieta el Errrotaberria. El de Murgi y Mazkarrene en Astigarraga y ya en Donostia: Mateo, Aguirre, Errrotaberri, Anoeta, Errtatxo, Juandegui y Santiago. Además de los antedichos en territorio de Navarra movía cinco molinos más. En total, el URUMEA y sus afluentes movían 24 molinos.

En todos ellos se molía trigo y maíz para las personas, y cebada, y avena para los ganados. Como casi todas las familias hacían su pan, tenían que acudir a los molinos a moler su grano, de aquí su popularidad. Por otra parte, para hacer un buen pan se requiere harina recién molida, por ello, no sólo había que acudir al molino a moler, sino que convenía hacerlo frecuentemente, y mejor todos los días, con el fin de tener "harina fresca".

## LAS FERRERIAS

La aparición de las ferrerías y los molinos utilizando para su funcionamiento la energía hidráulica, comienza en Europa hacia el siglo IX, pero su difusión es a partir del milenio y va aumentando su número poco a poco.

Había dos tipos de ferrerías, las "mayores" que transformaban el mineral de hierro en metal en barras, y las "menores" que transformaban estas barras en aperos: útiles para el trabajo, armas, clavos para la construcción, y cuanto de hierro fuera necesario.



En territorio de Hernani, en el URUMEA (ya que cuando el actual Lasarte pertenecía a Hernani tenía también la ferrería de su nombre en el Oria) tenemos constatadas la existencia de las siguientes ferrerías: APARRAIN, PAGOAGA, PIKOAGA, URRUZUNO, OLABERRI, HUERRATUA, ABILLAS, LASA, EREÑOZU, FAGOLLAGA, EPELA, CEAGO y OSIÑAGA.

## LOS CESTEROS

Desde hace miles de años el hombre primitivo usó ya la cesta para sus necesidades de transporte. Con el paso del tiempo nació la especialización gremial y entre los diversos oficios el de cestero.

Los cesteros que usan para su trabajo las ramas de castaño necesitaban situarse cerca de zonas de abundante agua ya que las ramas, desde su corte del árbol y hasta el momento de usarlas es necesario que estén sumergidas para que no pierdan su flexibilidad.



La aparición de nuevos productos (sacas, yutes, plásticos..) han relegado el uso de las cestas a meros elementos ornamentales de nuestras casas.

## EL GUARDA RIOS

La custodia de los ríos siempre fue importante, dado los muchos productos que de ellos se obtenía. Así, no se podía pescar arrojando cal o materiales ponzoñosos, no se podía curtir usando las aguas del río "antes de las poblaciones", para no contaminarlas, no se podía cerrar el cauce, sacar agua para regar ni hacer ninguna operación sin el oportuno permiso de las autoridades. Hacia finales del siglo pasado se creó la figura de los "guarda ríos" que eran las personas encargadas de esta labor de custodia del río.

## LOS ASTILLEROS

No sólo en la desembocadura del URUMEA, en terrenos de San Sebastián sabemos de la existencia de importantes astilleros, también aguas arriba los hubo. Así son conocidos los existentes en la zona de Martutene, y en Loyola, siendo estos últimos los que más tarde dejaron de trabajar como astilleros.

En los astilleros, aguas arriba, se construían sólo los cascos de los barcos grandes, que se bajaban vacíos, arrastrándolos y aprovechando la marea alta, para ser terminados y armados, generalmente en Pasajes.

## BARBERO-CIRUJANO-DENTISTA-SANGRADOR

Antaño era el BARBERO el encargado de hacer pequeñas intervenciones, que mejor sería llamarle "curas", al igual que se encargaba de sacar las muecas e incluso cuando el "médico titular asalariado" del pueblo lo recomendaba aplicaba al paciente las sanguijuelas, que se utilizaban para hacer las recurredísimas sangrías.

Este oficio, se aprendía entrando de aprendiz con otro "barbero-cirujano-dentista-sangrador", en un tiempo entre tres y cinco años, dependiendo de la sagacidad del mozo y de su edad.

En el libro de actas del Ayuntamiento de Hernani, del año de 1851 podemos leer:

*"Hallándose de algunos años a esta parte inundada dicha ría (el URUMEA) de patos pertenecientes a familias que tienen contiguos a ellas sus cacerías y habiendo enseñado la experiencia que son causa de que se eche a perder la cría de **sanguijuelas** tan apreciadas por sus cualidades superiores a las que se crían en otros puntos, se recomienda también al señor Presidente procure evitar este mal impidiendo el que anden los patos en ella".*

Era pues apreciado el URUMEA, también por sus sanguijuelas, necesarias para las sangrías.

## CAZA

No nos consta que hubiera gente que se ganara el sustento de la caza que existía en la zona del URUMEA, pero sí sabemos que los vecinos de la zona aprovechaban el río para cazar aquellas especies que anidaban en su zona, o que gustaban frecuentar el río y sus encharcamientos. En la descripción de la villa de 1831 se cuenta que existían aún en Hernani: zorros, jabalíes, gamos, lobos, patos, percas, avefrías, becadas, becacines, codornices y faisanes" entre otras especies.

## FIESTAS

A principios del presente siglo se hicieron muy populares las "giras por el URUMEA", en las que gente de San Sebastián subía en gabarras, ricamente engalanadas con papelitos y lámparas de papel, hasta Loyola y Martutene en festivos paseos. El que en esta última zona se estableciera el parque de atracciones Kursaal (en la zona cercana a la actual sidrería de Barcaiztegi), que contó incluso con su plaza de toros, hizo que fuera un punto de asistencia masiva.



Para este fin, los gabarreros, que los días de labor trabajaban en el transporte, acicalaban y adecentaban sus embarcaciones, con objeto de sacar unas pesetas supplementarias para las maltrechas economías familiares.

Tampoco hay que olvidar las diversas competiciones que con motivo de las fiestas del barrio de Loyola se hacían en el URUMEA: pruebas de natación, de remo y sus famosísimas cucañas, que aun recuerdan con nostalgia los ancianos del lugar.

## EL DEPORTE

También solía celebrarse una Travesía del URUMEA, a nado libre, desde Txomin-enea hasta las "Escuelas Francesas".

En una ocasión el URUMEA mereció el honor de que se disputase en sus aguas el Campeonato de España de natación de Fondo, que ganó el madrileño Florez.

Más modernamente como lugar de entrenamiento para los remeros del Ur-Kirolak –que este año hacen 75 años de su fundación–, y del Club de Remo de Hernani, o las pruebas de traineras y trainerillas que anualmente se celebran en sus aguas.

COMPARSA DE SAN JUAN

27 de Junio de 1997

# brintza

BRINTZA, S. L.

Juan de Urbieta, 15  
Tel. 33 12 67 - Faxa 33 08 92  
Harriberri, 9 - ALTZA (Donostia)  
Tel. 35 27 94 - Faxa 35 33 79

LAN AHOLKULARITZA  
AHOLKULARITZA FISKALA  
ASEGURUAK. INBERTSIOAK



**MAPFRE**



HARRIBERRI, 9 - ALTZA (Donostia)

Elkano, 16 behea - HERNANI - Tel 33 12 67

## SAN JOANETAKO KONPARTSA



Kardaberaz, 60  
Tel. 55 43 12 - Faxa 55 56 52  
Hernani

Zelai - Alde Plaza, 6 (Atzea)  
Tel. 33 17 52  
URNIETA

- AHOLKULARITZA  
FISKAL ETA JURUDIKOA
- AHOLKULARITZA  
FINANTZARIOA
- ASEGUROAK



**MAPFRE**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*f u n d a z i o a*  
*f u n d a c i ó n*